

4/2017. AKTA  
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK MAIATZAREN  
9an EGINDAKO BILERA

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA:**

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

**BATZORDEKIDEAK:**

Javier Albizu Sanz, *Artazuko alkatea*  
Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*  
Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesko alkatea*  
Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea*  
Angel Obanos Galar jn., *Artikako presidentea*  
Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko lehendakaria*  
Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko presidentea*  
Maria Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*  
Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea*  
Unai Lako Goñi jn., *Agoizko alkatea*  
Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*  
Angel Navallas Echarte, *Zangozako Eskualdeko Mankomunitatea*  
Ezequiel Martin Muxika jn., *Atezko alkatea*  
Luis Alfonso De Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea*  
David Alvarez Yanguas jn., *Castejongo alkatea*

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren bederatzian, arratsaldeko bostetan, bigarren deian, batzorde betearazlea elkartu da Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera karrika 20-3. solairua, Iruñea), eta bertan izan dira albo batean aipatutako batzordekideak. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. izan da, eta idazkaria, berriz, Berta Enrique Cornago andrea, erakundeko idazkaria, honakoa izanik,

**EGUNEKO GAI ZERRENDA**

- 1.- Aurreko bilkurako akta onetsi.
- 2.- Batzordeen eta kontseilu sektorialen informazioa.
- 3.- Ordezkariek izendatzea batzorde sektorialetarako.
- 4.- Aplikazio informatikoa erostea, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak, Kontuen Ganberak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sinatutako lankidetzak-akordioa betez.
- 5.- Presidentearen informazioa
- 6.- Galde-eskeak

**1. PUNTUA. Aurreko bilkurako akta onetsi.**

Bilerarako deialdiarekin batera aurreko bilkurako aktaren kopia bidalita, aldeztatik aipatu akta irakurri beharrik gabe, presidente jaunak batzorde betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Alvarez jaunak esan du gustatuko litzaiokeela bera eta batzorde betearazleko beste kide batzuk etorri ez izana barkatzea; izan ere, bilerarekin batera Poliziak Koordinatzeko Batzordearen bilera ere izan zen, eta batzorde horretako kideak dira.

Presidenteak esan du aktan jasota geratuko dela.

Ez zaio ohar gehiagorik egin.

**ERABAKI DA:** 2017ko apirilaren 11ko bilkurako akta onestea.

## **2. PUNTUA. Batzordeei eta kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.**

Burutu diren batzordeei eta kontseiluei buruzko informazioa eman da.

- **Nafarroako Eskola Kontseilua** (2016/04/26). Jakinarazi da bilera horretan hezkuntza-kontseilari izendatu berriaren aurkezpena egin zela, eta hainbat proiektu arauemaileri irizpena eman zitzaiela. Horien artean, LHko ikasleak onartzeko foru-aginduaren proiektuari, eta baxu eta gitarra elektrikoa ezartzeari buruzkoari. Aldeko txostena eman zitzaion, halaber, Mendillorri BHlri diru-kopurua emateko eta Castejon DBHI sortzeko gobernu-akordioari.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea**. (2017/04/27). Aurrez egindako bilera teknikoetan proposatutako aferetatik asko jaso ondoren, euskararen erabilera arautzen duen foru-dekretuaren proiektuari aldeko txostena eman zitzaion.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea** (2017/05/05). Nafarroako Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileen arloan bi foru-dekreturen proiektuari buruzko txostena eman zen. Bat oporrei eta baimenei buruzkoa, eta bestea lanaldia murriztea arautzen duena. Txostena aldekoa izan zen. Hala eta guztiz ere, aipatu zen komenigarria litzatekeela aldez aurretik toki-erakundeetako langileei eraginen dieten baldintzen negoziazioan parte hartu ahal izatea. Kontzejuetako funtzionarioei eragiten dieten baimenei dagokienez, proposatu zen alkateak deitutako bilerara ere joateko baimena zabaltzea, orain arte soilik kide anitzeko organoetara joateko baimena baitzegoen.
- **Euskararen Nafar Kontseilua** (2017/05/20). Euskararen erabilera arautzen duen dekretuari aldeko txostena eman zitzaion.
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa** (2017/05/13). Jakinarazi da maiatzaren erdialdera deialdia argitaratuko dela. NUKF baterako plan gisa aurkeztuko da. Horretarako, bereiz aurkez litezkeen toki-erakundeak onartzeko eskaera-prozedura abian paratuko da. Ziur aski, deialdia ekainaren amaiera aldera ebatziko da. Jakinarazitakoaren arabera, Estatuko Aurrekontuak oraindik onartu ez direnez, prestakuntza-plana hasiera batean 66.950 euroko diru-kopuruarekin onartuko da; gerora, ordea, diru-kopuru osotik (126.000 euro) falta denarekin osatuko da.

**ERABAKI DA:** Jakinaren gainean egotea.

## **3. PUNTUA. Ordezkariek izendatzea batzorde sektorialetarako.**

Ondorengo kontseiluetarako ordezkariek izendatzea proposatzen da:

- Miguel Indurain Fundazioaren Patronatua  
*Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea*
- Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua.  
*Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea*  
*Berta Enrique Cornago, NUKFko idazkari nagusia (ordezkoa)*

**ERABAKI DA:** Izendapena onartzea proposatutako moduan.

#### **4. PUNTUA. Aplikazio informatikoa erostea, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuak, Kontuen Ganberak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak sinatutako lankidetzak-akordioa betez.**

Presidenteak NUKFk hartu zuen konpromisoa azaldu du, Landa Garapeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuarekin eta Kontuen Ganberarekin sinatutako lankidetzak-akordioa betez (deialdiarekin atxiki dugu).

Konpromiso horren arabera, Nafarroako toki-erakunde askotan kontabilitate analitikoa ezartzea ahalbidetzen duen aplikazio informatikoa erosiko dugu, betiere, aplikazio hori Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak balidatzen badu. Aplikazioa eskuratzea ezarpen orokor bat lortzeko nahikoa ez balitz, beste aplikazio bat eskuratzeko aukera kontuan hartu da. Aplikazioa bakoitzaren gehieneko kostua ez da 15.000 eurotik gorakoa izanen (BEZa kanpo).

Idazkari nagusiak jakinarazi du Rural Kutxak dagoeneko aurkeztua duela aipatu departamentuak balioetsitako aplikazio bat, eta horrek kontabilitate analitikoa toki-erakunde kopuru handi batean ezartzea ahalbidetuko lukeela; horrela, akordioaren baldintzak beteko lirateke.

Jakinarazi da, orobat, bilera egin dela Toki Administrazioiko Departamentuarekin; horretan, aplikazioaren egokitasuna berretsi da, eta Departamentua aplikazio hori lankidetzak-akordioaren baldintzetan ezartzeko prest dagoela adierazi da. Bilera horretan, halaber, jakinarazi zaigu ANIMSAk ere aplikazio bat garatu duela, baina oraindik ez dago balioetsia.

NUKFk aplikazioa erosteak berarekin ekarriko du aplikazio hori Nafarroako toki-erakunde guztietan (eskaera egiten dutenetan) dohainik ezartzea, nahiz eta toki-erakunde bakoitzak dagozkion mantentze-lanengatikoa kostua ordaindu beharko duen.

Horrela, mantentze-lanen kostua lankidetzak-akordiotik kanpo geratzen dela adierazi da. Rural Kutxari kostu horien kalkulua eskatu zaio. Esan digute informazio hutserako izanen den kalkulua egin liezaguketela, oraindik, ordea, ez digute bidali.

Ondoren, gai honi buruzko esku-hartzeetarako txanda ireki da.

Larrarte jaunak galdetu du zer gertatzen den beste informatika-enpresekin lan egiten duten udalekin, Tuterako Udalarekin kasurako.

Idazkari Nagusiak esan du NUKFren konpromisoa toki-erakunde kopuru zabal batean ezar daitekeen aplikazio informatikoa erostea dela. Horregatik, une honetan baldintza hori Rural Kutxaren eta ANIMSAren aplikazioek beteko lukete, ez besterik.

Bestalde, Albizu jaunak esan du ezin zaiela ANIMSAri ematen zaion tratamendu berdina ema beste enpresei, ANIMSA sozietate publikoa baita.

Ondorioetarako, idazkari nagusiak esan du, halaxe dela, halako akordioak edo hitzarmenak izenpetzeko aukera desberdina dela, entitate publikoa den ala ez kontuan hartzen badugu.

Alvarez jaunak proposatu du erraztu egin beharko litzatekeela udalak ANIMSA n sartzeari.

ANIMSAren funtzionamenduarekin eta beste enpresetan hainbat aplikazio martxan jartzeko izan den atzerapenarekin (espedienteen kudeaketa elektronikoa, eta abar) lotura duten hainbat esku-hartze izan dira. Atzerapen horrek izan ditzakeen arrazoi gisa aipatu dira ANIMSAk berme handiago ematen duen

ildoa defendatzen duela, eta, halaber, estatu-mailan lan egiten duten beste enpresek ez bezala, ANIMSAk bere jarduna foru-erkidegora mugatua edukitzea. Edozein modutara, toki-erakundeentzat zein eredu informatiko nahi dugun hausnartu behar dugu.

ANIMSAren aplikazioari dagokionez, Departamentuari bilera eskatu beharko litzaiokeela proposatu da, eta horretan Iruñeko Udala eta aplikazioan interesa duten beste udal batzuk ere egotea proposatu da, ANIMSAren aplikazio zein egoeratan dagoen eta aplikazioa baliozkotzeko aurreikuspenak zein diren jakiteko.

Azkenik, presidenteak gogora ekarri du finantziario-sistema aldatzeko oinarritzko tresna dela, eta, edonola ere, aplikazioa eskuratzea dagoeneko hartutako konpromisoa dela.

Afera batzorde betearazleko kideen onspenean jarrita,

#### **ERABAKI DA:**

Aipatu konpromisoa betetzea, eta, ondorioz, Rural Kutxak aurkeztutako aplikazio informatikoa erostea Landa Garapenerako eta Toki Administrazioaren Departamentuarekin eta Kontuen Ganberarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenean jasotako baldintzetan.

#### **5. PUNTUA. Presidentearen informazioa.**

Presidente jaunak honako gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzen dituzten enpresek jabari publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasak. Jakinarazi da tasa horri buruz berriki eman diren epaiak aztertzen ari direla, epai horiek foru-erkidegoan nola ezarriko diren eta tasa hori zein enpresari kita dakiekeen ezagutzeko.
- Iruñeko alkatearekin izandako bilerari buruzko informazioa, hainbat udalek Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Jasangarritasunerako Legearen edukia errefusatu hartutako erabakien berri emanez. Halaber, informazio hori udal guztietara bidaltzea eskatu digute, ekimenarekin bat egin dezaten.
- Hausnarketarako taldearen eta talde gidatzailearen bilerak. Hiru bilera egin direla aipatu da. Horietan, prozesuaren bigarren faseko emaitzak aztertu, eta azken txostena lantzeko ondorioak finkatu dira.
- Euskara teknikaria/itzultzailea aukeratzeko prozesua. Heldu den ostiralean egingen da azken hautapena. Hamazazpi lagunek gainditu dute. Ostiralean proben eta merituen balorazioaren emaitza argitaratuko da.
- Udaltzain-aguazilen ordezkariarekin izandako bilera. Bilera horretan adierazi digute udaltzainak ez daudela ados aurreproiektuan jasotako aurreikuspenekin. Desadostasun horiek izenarekin, izaera ez-polizialeko eginkizunekin, eta izaera orokorrarekin Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzura dauden langileen estatutua aplikatzearekin dute zerikusia.
- Gainbalioaren gaineko zerga aldatzearen inguruan Ogasunarekin, Toki Administrazioarekin, Iruñeko Udalarekin eta Nafarroako Administrazio Auzitegiarekin egindako bilera, gainbalioaren gaineko

zergaren inguruan Konstituzio Auzitegiak (KA) emandako epaiekin bat etorriko diren aldaketak adosteko.

- FAMPeko presidenteari bilera eskatu zaio, eta hori maiatzaren 23an egingen da, Aragoi landutako eskualde-mailako prozesua ezagutzeko (une honetan oraingoz azterketa-fasean dago).

## **6. PUNTUA. Galde-eskeak.**

Echeverria jaunak galdetu du, aurrekontu-egonkortasuna dela-eta, ea NUKFk beste jardueraren bat burutuko duen.

Presidenteak gogora ekarri du 2015eko batzarrean adostu zela zegokien organismoek helaraztea EBren 135. artikulua Aurrekontu Egonkortasunerako Legea indargabetu behar zirela. Halaber, NUKF bultzatutako jardueren zain gaude, baina, hala ere, udalen akordioak jaso ondoren, federazio gisa beste jardueraren bat burutzea egokia den ala ez baloratuko da.

Alvarez jaunak eskatu du mozioa eta hausnarketa-taldeko eta talde zuzentzaileko kideei bidali zaien dokumentazio guztia ahal denik eta azkarren bidaltzea.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemezortziak eta hogeita hamar direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA

IDAZKARIA

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.